

Arabako Foru Aldundiaren programa bati esker mendekotasuna duten adinekoen talde batek oporraldi batez gozatu ahal izango du

12 kideko taldeak, erizainak, zaintzaileak eta boluntarioak lagun dituela, oporraldia hasi du, Las Cuatro Torres elkarteak antolatuta

Gasteiz, 2019ko irailaren 9a. Mendekotasuna duten guztira 12 adineko, erizainak, zaintzaileak eta Las Cuatro Torres elkarteko boluntarioak lagun dituztela, astebeteko oporraldia hasi dute gaur, Islan (Kantabria).

Elkarte horrek, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez, Arabako Foru Aldundiarekin izenpetuta duen programa bat dugu, lurraldeko adineko pertsonen gizarte sustapeneko jarduerak garatzen laguntzekoa. Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko foru diputatua bidaiari parte hartu dutenekin izan da gaur goizean, Gasteiztik irteteko presatze lanetan.

Programa horri esker, mendekotasuna duten adinekoek aukera izango dute erabateko, kalitatezko eta berme osoko oporraldiaz gozatzeko. Horrela, familiek mendeko senide bat zaintzeak dakarren ohiko betebeharretatik arnasaldi bat hartzeko aukera izango dute.

Jarduera horrek kalitatezko oporraldiaz gozatzea ahalbidetzen die bestela halako bidaiarik egin ezin izango luketen pertsoneri. Bidaia egiteko autobusa eta aukeratutako hotela egokituta daude eta, horrela, oporretan joan daitezke gorpil aulkian dabilzanak ere. Era berean, dena dago programatuta, jardueretatik hasi eta azpiegitura eta erritmoetaraino, hara doazen beharrak asetzeko eta oporraldi bete-beteak eta gozagarriak izateko, baina nekagarriak izan gabe.

Itsasertzeko Isla herriaz gozatu ez ezik, programa honen erabiltzaileek kultura eta aisialdi txangoak ere egingo dituzte Santander, Santoña eta Cabarceno parke naturalera.